



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailak 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2024

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK BUSTURIALDEA-URDAIBAI ESQUALDEA BERRAKTIBATZEKO PLAN ESTRATEGIKO BAT EGITEA ONARTU DU

- **Lehentasunezko Jarduera Eremuetarako (LJE) gainerako kasuetan bezala, eskualdeko eragile sozial eta ekonomiko nagusiekin batera hausnartu eta diagnostikoa egin ondoren abiatuko da Plana**

Gobernu Kontseiluak gaur Busturialdea-Urdaibai eskualderako erakunde arteko Plan Estrategiko bat aurrera eramatea onartu du, Euskadiko Ekonomia eta Enplegua berraktibatzeke, Berpiztu programaren bitartez, Lehentasunezko Jarduera Eremuetarako (LJE) garatutako ereduaren ildo beretik.

Busturialdea-Urdaibai eskualdeak, orotara, 20 udalerrri biltzen ditu, 46.300 biztanle inguru dauzka, eta bertan dago Euskadiko Biosfera Erreserba bakarra. Azken urteetan zehar bizi behar izan ditugun testuinguru desberdinek zailtasunak eragin dituzte, horretaz gain, eskualdeko jarduera baldintza berezi batzuetan garatzen da; horren ondorioz, arriskuan geratu da inguru honetako ekonomia- eta industria-sare bereziak eraldatzeko, enpresa-proiektu berriak aurrera ateratzeko eta lanpostu berriak sortzeko eskualdeak izan lezakeen gaitasuna.

Hortaz, Busturialdea-Urdaibaiko eskualdeak garapen sozioekonomikorako estrategia propioa behar du, betiere bertako errealitatera, biztanleen beharretara, ingurune naturalera eta inguru hau eremu babestu gisa katalogatzearen ondorioz sortu diren baldintza eta aukera berrietara egokituta.

Plan Estrategikoa eskualdeko eragile sozial eta ekonomiko nagusiekin partekatutako gogoeta eta diagnostiko batetik abiatu beharko litzateke. Plan Estrategiko horrek diagnostiko horretan atzematen diren beharrei erantzungo lieke, eta ekonomiaren eta industriaren dinamizazioa eta dibertsifikazioa, nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako baliabideen aprobetxamendu jasangarrirako kultura berria, inguruko turismoaren kontrola eta turismoaren ondorioak, ur-saneamendua eta ur-hornidura, mugikortasuna eta azpiegituren sustapena, gizarte-kohesioa, kultur sektorearen dibertsifikazioa, hirien eta ingurumenaren berroneratzea eta gisa horretako alderdiak jaso beharko litzuzke.

Lehentasunezko Jarduera Eremuetarako garatutako ereduaren ildotik, Plana bost jarduera-eremutan egituratu ahalko da:

- Jarduera ekonomikoa, prestakuntza eta enplegua
- Hiri-erlaldaketa eta berroneratzea
- Kultura eta turismo jasangarria
- Mugikortasuna eta ingurumena
- Oinarrizko azpiegiturak: hornidura, saneamendua edo lurzoruen leheneratzea

Plana egiteko ikuspegi metodologikoak honako hauek jaso beharko ditu:

- Eskualdearen erronka estrategiko nagusiei lotutako ikuspegia.
- Euren baitan ekimen espezifikoak izango dituzten 5 edo 6 proiektu traktore identifikatzea, deskribatzea eta kuantifikatzea.
- Eraitza-adierazleen panel bat, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- Plana ezartzeko eta bere jarraipena egiteko gobernantza-eredua.

Behin eginda, erakunde arteko Plan Estrategikoa Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, Busturialdea-Urdaibai eskualderako proposatutako eta aurrera eramateko ekimeneren jarraipena egin ahal izateko.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 24 MILIOI EURO BIDERATU DITU HEZKOOOP-2024 DEIALDIRAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatu, titularitatez kooperatiba edo fundazio diren itunpeko ikastetxeetako inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua (HEZKOOOP-2024 agindua).

Agindu honek 24.000.000 euroko zenbateko globala duten dirulaguntzak deitzea du helburu, itunpeko ikastetxeen titularrak diren irakaskuntza-kooperatibek edo fundazioek hitzartutako maileguak finantzatzeko. Mailegu horiek, hezkuntzan erabiltzeko eraikinak eskuratzera bideratuak izan beharko dute, edo eraikin berriak egitera, daudenak handitzera, ordezkatzera edo indarrean den legeriak exijitutako baldintzetara egokitzera bideratutako inbertsioak egiteko.

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hezkuntza Berezian ituna duten ikastetxeek lortu ahal izango dute dirulaguntza, baldintza hauetakoren bat betetzen badute: irakaskuntza-kooperatiba gisa eratuta egotea; edo fundazio gisa eratuta egotea. Fundazioen kasuan betiere estatutuetan honako baldintza hau eduki beharko dute finkatuta: fundazioa desagertuz gero, likidatzeko operazioen ondoriozko ondasun guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari emango zaizkiola.

Diruz laguntzekoak dira ikastetxeen titularrek 50.000 euroko edo goragoko zenbatekoan hitzartutako maileguak, inbertsioak bukatzeko epea 2021eko urriaren 1etik deialdi honetara eskaerak aurkezteko azken egunera bitartekoa bada.

Diruz lagundu daitezkeen maileguekin finantzatutako inbertsioek baldintza hauek bete beharko dituzte: ikastetxeetan behin-behinekotasuneko egoerak desagerrarazten lagunduko duten inbertsioak izatea (behin-behineko egoeratzat hartzen dira alokairuko lokalak, aurrefabrikatutako ikasgelak, etxebizitzetako behe-solairuak edo eskolatzeko egoki jotzen ez diren eremuak). Era berean, diruz laguntzekoak izango dira ikastetxeetako espazioak zabaltzen dituzten inbertsioak ere, ikastetxe horiek nahikoa leku ez badute.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, amortizazioaren eta 8 urterako eta kuota finkoko maileguaren interesaren % 50ekoa izango da.

Ikastetxeen titular diren kooperatiba eta fundazioek finantza-ahalegin handia egiten dute euren eraikin eta instalazioak legediak eskatzen dituen betebeharrak egokitzeko. Errealitate horretaz jabetuta, Hezkuntza Sailak ikastetxeen finantza-karga arintzen laguntzen du deialdi honen bidez.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ESPETXEEN ESPARRUAN IRTEERA PROGRAMATUAK ETA TERAPEUTIKOAK EGITEKO LAGUNTZAK ERREGULATZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak dekretu bat onartu du, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eskatuta, honako hauek erregulatzeko oinarriak ezartzeko: espetxean, baldintzapeko askatasunean eta bien senitartekoei laguntza-prestazio ekonomikoak ematea; irteera programatuak edo terapeutikoak egiteko laguntzak ematea; eta espetxean dauden pertsonen sariak eta pizgarriak ematea, baita Aukerak-en prestakuntzarako pizgarriak ematea ere.

Laguntzen helburua da gabezia ekonomikoak estaltzea eta hartzaileei tratatzeko eta gizarteratzeko behar diren baliabideak ematea. Bizitza-, osasun- edo gizarte-kontingentziek eragindako beharrak asetzera bideratuta daude, baita espetxe-administrazioaren mende dauden askatasunaz gabetutako pertsonen bizikidetzaprozesuak eta sustapen pertsonala sustatzera ere.

Dekretuak laguntzen oinarria erregulatzeko du, eta deialdia egiten du 2024rako, 75.000 euroko aurrekontuarekin.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ETA HABE-REN ARTEKO AKORDIOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEI EUSKARA-ESKOLAK EMATEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eta HABE – Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen arteko hitzarmena sinatzea, Euskal Justizia Administrazioako kidego eta eskalak osatzen dituzten langileentzako euskara-prestakuntzako ikastaroak antolatzeko, ikastaro horiek kontratatzea eta ikasleen jarraipena egitea helburu hartuta:

- Prozesu- eta administrazio-kudeaketa.
- Prozesu- eta administrazio-tramitazioa.
- Laguntza judiziala.
- Auzitegiko medikuen kidegoa.
- Karrera judizialeko langileak eta karrera judizialerako hautagaiak.
- Aldi baterako lanpostuak betetzeko epaileak.
- Ordezko magistratuak.
- Bake-epaileak.
- Karrera fiskaleko eta Justizia Administrazioako letraduen kidegoko pertsonala: titularrak eta ordezkoak.

Horretarako, akordioak 430.000 euroko ekarpen ekonomikoa ezartzen du 2024rako.

Euskara-ikastaroak autoikaskuntza-sistemen bidez edo euskaltegi batek emandako ikastaro presentzialen sistemen bidez antolatuko dira, eta Administrazioaren beraren lokaletan edo euskaltegian bertan eman ahal izango dira.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 500.000 EUROKO LAGUNTZA EMANGO DU FILM LUZEAK, TELESAILAK EDO MINISERIEAK GARATZEKO, BEREZIKI EUSKARAZ EGINDAKOAK

- **Fikziozko, animaziozko eta dokumentalerako proiektuak dira diruz lagunduko direnak**
- **Jaurlearitzak 100.000 euro handitu ditu euskarazko proiektuak sortzeko laguntzak**

Gobernu Kontseiluak gaur 2024eko ekitaldian zehar edozein hedabidetarako eta edozein euskarritarako film luze, serie edo miniserie proiektuak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Guztira 500.000 euro izango dira, iaz baino 100.000 euro gehiago, euskaraz sortutako proiektuak sustatzeko: 250.000 euro film luzeak garatzeko eta 250.000 euro serieak eta miniserieak garatzeko.

Diruz lagunduko diren gastuak honakoak izango dira:

- Obraren egilearen eskubideak eskuratzea.
- Gidoiaren garapena. Berridazketa edo egokitzapena, elkarrizketak, kanpoko aholkularitza, itzulpena.
- Promozio-materiala diseinatzea eta lantzea: Material inprimatua, teaser-a, trailerra, programa pilotua, story board-a, web orria.
- Marketing- eta banaketa-plana garatzea.
- Merkatu eta koprodukzio foroetara joatea. Bidai gastuak, alojamendua eta akreditazioak.
- Casting-a egitea eta kokapenak bilatzea.
- Ikerketa dokumentala, grafikoa (animaziozko proiektuetan) eta artxiboak bilatzea.
- Langile-gastuak.
- Aholkularitza juridikoa eta fiskala aurkeztutako proiektuarentzat.
- Gastu orokorrak.

Film-luzeen garapena

Dirulaguntzetara aurkezteko film luzetat hartuko da “ikus-entzunezko lan bat, fikziozkoa, animaziozkoa edo dokumentala izan eta 60 minutu edo gehiagoko iraupena duena eta zinema-aretoetan, plataformetan edo telebistetan komertzialki ustiatzeko erabiltzen dena”.

Laguntzen zenbatekoa ez da 25.000 eurotik gorakoa izango fikzio eta dokumentalen kasuan, eta 35.000 eurotik gorakoa euskarazko proiektuen kasuan. Animazio-proiektuei dagokionez, 40.000 eurokoa izango da dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa, eta 50.000 eurokoa euskarazkoentzat.

Serieen garapena

Gaur onartutako dirulaguntzekin fikziozko, animaziozko eta dokumental serieak eta miniserieak garatzen lagunduko da. Horretarako serietzat hartuko dira “ikus-entzunezko proiektuak, fikziozkoak, animaziozkoak edo dokumentalak izan, guztira, gutxienez, 135 minutuko iraupena dutenak, lehen denboraldiari dagozkion hiru kapitulurekin gutxienez, eta zine aretoetan, telebistetan edo bestelako hedapen-moduetan ustiatzen direnak”.

Bestalde, miniserietzat hartuko dira “ikus-entzunezko proiektuak, fikziozkoak, animaziozkoak edo dokumentalak izanik, gutxienez bi kapitulu eta guztira 90 minutuko iraupena dutenak. Proiektu horiek zine-aretoetan, telebistetan edo plataformetan merkaturatzeko ustiatu beharko dira”.

Aurkezten diren fikziozko edo dokumentaleko telesail edo miniserieek 35.000 euroko dirulaguntza jasoko dute gehienez, 45.000 euro euskaraz egindakoentzat. Animaziozko telesail eta miniserien kasuan, gehienezko laguntza 45.000 eurokoa izango da, eta 55.000 eurokoa euskarazko proiektuetan.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da martxoaren 25etik apirilaren 25era.

Iazko deialdiaren bidez (2023), 12 film luze lagundu ziren diruz, horien artean, "Lamiak", "Hemen nago", "Errautsak-popel" edo "Cicatriz"; eta 5 serie, "Ezkiko elezaharrak", "Egia" edo "Luces rojas".

Presidencia

EL GOBIERNO APRUEBA LA ELABORACIÓN DE UN PLAN ESTRATÉGICO PARA LA REACTIVACIÓN DE LA COMARCA BUSTURIALDEA-URDAIBAI

- **Al igual que el resto de Zonas de Actuación Prioritaria (ZAP), el Plan se elaborará partiendo de una reflexión y un diagnóstico compartido con los principales agentes sociales y económicos de la Comarca**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la elaboración de un Plan Estratégico interinstitucional para la comarca Busturialdea-Urdaibai, siguiendo el mismo modelo que los desarrollados para las Zonas de Actuación Prioritaria (ZAP), impulsadas a través del Programa Berpiztu, para la Reactivación Económica y del Empleo de Euskadi.

La comarca de Busturialdea-Urdaibai consta de 20 municipios con alrededor de 46.300 habitantes y acoge la única Reserva de la Biosfera de Euskadi. Durante los últimos años, las dificultades derivadas de los diferentes contextos vividos y las condiciones especiales en las que se desarrolla la actividad en la comarca, han puesto en riesgo la transformación del particular tejido económico e industrial de la zona, el desarrollo de nuevos proyectos empresariales, así como la generación de nuevos puestos de trabajo.

La comarca requiere, por lo tanto, una estrategia de desarrollo socio-económico propia y adaptada a su realidad; a las necesidades de sus habitantes y de su entorno natural, a los condicionantes y las oportunidades derivadas de su catalogación como espacio protegido.

El nuevo Plan se deberá elaborar partiendo de una reflexión y un diagnóstico compartido con los principales agentes sociales y económicos de la comarca. Este diagnóstico podrá recoger aspectos como la dinamización y diversificación económica e industrial, una nueva cultura de aprovechamiento sostenible de los recursos agropecuarios y pesqueros, el control del turismo en la zona y sus efectos, el saneamiento y abastecimiento de aguas, la movilidad y el impulso de infraestructuras, la cohesión social, la diversificación del sector cultural o la regeneración urbana y medioambiental.

Siguiendo los modelos desarrollados para el resto de las ZAP en ejecución, el Plan se podrá estructurar en cinco ámbitos de actuación:

- Actividad económica, formación y empleo
- Transformación urbana y regeneración
- Cultura y turismo sostenible
- Movilidad y medio ambiente
- Infraestructuras básicas: abastecimiento, saneamiento, recuperación de suelos...

El enfoque metodológico para la elaboración de este Plan deberá recoger:

- Una visión vinculada a los principales retos estratégicos de la Comarca.
- Identificación, descripción y cuantificación de 5 o 6 proyectos tractores que incluirían, a su vez, iniciativas específicas.
- Un panel de indicadores de resultado para el seguimiento y evaluación del Plan; y
- El modelo de gobernanza para su implantación y seguimiento.

Una vez elaborado, este Plan estratégico interinstitucional será remitido al Parlamento Vasco, al efecto de posibilitar el seguimiento de las iniciativas propuestas y a desarrollar en la Comarca de Busturialdea-Urdaibai.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 24 MILLONES DE EUROS PARA LA CONVOCATORIA HEZKOOOP-2024

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan subvenciones para la financiación de inversiones en centros educativos de la red concertada cuya titularidad revista la forma de cooperativa o fundación (convocatoria HEZKOOOP-2024).

El objeto de esta orden es convocar ayudas, por un importe global de 24.000.000 de euros, a la financiación de préstamos suscritos por cooperativas de enseñanza o fundaciones titulares de centros docentes concertados, bien sean para la realización de inversiones destinadas a la adquisición de inmuebles para uso educativo, o bien para la realización de obras de nueva construcción, ampliación, sustitución y adecuación a los requisitos exigidos por la legislación vigente.

Podrán obtener subvención los centros educativos concertados en los niveles de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Educación Especial que cumplan uno de los siguientes requisitos: estar constituido como cooperativa de enseñanza, o bien estar constituido como fundación, siempre que en sus Estatutos se establezca que, en caso de extinción, los bienes resultantes de las operaciones de liquidación se destinarán íntegramente a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En el caso de las cooperativas de enseñanza, esta circunstancia queda acreditada por su normativa vigente.

Son subvencionables los préstamos suscritos por los o las titulares de los centros por importe igual o superior a 50.000 euros y cuyo plazo de finalización de la inversión este comprendido entre el 1 de octubre de 2021 y el último día de presentación de solicitudes de esta convocatoria.

Las inversiones financiadas con los préstamos subvencionables deberán contribuir a hacer desaparecer situaciones de provisionalidad de los centros de enseñanza (locales en alquiler, aulas prefabricadas, plantas bajas de viviendas o espacios que se consideran inadecuadas para la escolarización). También se considerarán subvencionables aquellas inversiones que van destinadas a ampliar los espacios docentes, debido a la insuficiente capacidad de los mismos.

La cuantía de la subvención alcanzará un máximo del 50% de la amortización y del interés del préstamo tipo a 8 años y cuota fija.

Las cooperativas y fundaciones titulares de centros de enseñanza realizan un notable esfuerzo financiero para adaptar sus edificios e instalaciones a las exigencias de una legislación que, en los últimos años, ha experimentado

cambios. Consciente de esta realidad, el Departamento de Educación contribuye a aliviar la carga financiera de los centros.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

APROBADO EL DECRETO REGULADOR DE AYUDAS PARA SALIDAS PROGRAMADAS Y TERAPÉUTICAS EN EL ÁMBITO PENITENCIARIO

El Consejo de Gobierno ha aprobado a instancias del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales un decreto para establecer las bases reguladoras para la concesión de prestaciones económicas asistenciales a personas en prisión, en libertad condicional y familiares de ambos; ayudas para la realización de salidas programadas o terapéuticas; y para la concesión de premios e incentivos a personas en prisión, así como para los incentivos a la formación de Aukerak.

El objetivo de las ayudas es cubrir las carencias económicas y dotar a las personas destinatarias de los medios necesarios para su tratamiento e integración social. Están orientadas a satisfacer las necesidades derivadas de contingencias vitales, sanitarias o sociales, así como a promover los procesos de convivencia y promoción personal de las personas privadas de libertad dependientes de la administración penitenciaria.

El Decreto regula la base de las ayudas y convoca las mismas para el año 2024, donde el presupuesto será de 75.000 euros.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

ACUERDO ENTRE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES Y HABE PARA IMPARTIR CLASES DE EUSKERA AL PERSONAL DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la firma de un convenio entre el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales con el Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización – HABE para la organización de los cursos de formación lingüística de euskera para el personal que integra los cuerpos y escalas de la Administración de Justicia vasca, así como la contratación de dichos cursos y el seguimiento del alumnado:

- Gestión Procesal y Administrativa
- Tramitación Procesal y Administrativa
- Auxilio Judicial
- Cuerpo de Médicos/as Forenses
- Personal de la Carrera Judicial y aspirantes a la misma
- Jueces y juezas de provisión temporal
- Magistrados/as Suplentes y Sustitutos/as
- Jueces y juezas de Paz
- Personal de la Carrera Fiscal y del cuerpo de Letrados/as de la Administración de Justicia: titulares y sustitutos/as.

Con este fin, el acuerdo establece una aportación económica de 430.000 euros para 2024.

La organización de cursos de euskera se realizará mediante sistemas de autoaprendizaje o mediante sistemas de cursos presenciales impartidos por un euskaltegi, pudiendo ser impartidos en locales de la propia Administración o en el propio euskaltegi.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APOYARÁ CON 500.000 EUROS EL DESARROLLO DE LARGOMETRAJES, SERIES O MINISERIES, ESPECIALMENTE AQUELLOS REALIZADOS EN EUSKARA

- **Serán subvencionables los proyectos de ficción, animación y documental**
- **El Gobierno aumenta en 100.000 euros las ayudas con el fin de promover la creación de proyectos en euskara**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de subvenciones para el desarrollo de proyectos de largometrajes, series o miniseries para cualquier medio de difusión durante el ejercicio 2024. En total serán 500.000 euros, 100.000 euros más que el año pasado con el fin de promover la creación de proyectos generados en euskara: 250.000 euros para el desarrollo de largometrajes y 250.000 euros para el desarrollo de series y miniseries.

Los gastos subvencionables serán los siguientes:

- Adquisición de los derechos de autor de la obra.
- Desarrollo del guion: reescritura o adaptación, diálogos, asesoramiento externo, traducción.
- Diseño y elaboración de material promocional: Material impreso, teaser, tráiler, programa piloto, story board, página web.
- Elaboración del plan de marketing y distribución.
- Asistencia a mercados y foros de coproducción: gastos de traslado, alojamiento y acreditaciones.
- Cáasting y búsqueda de localizaciones.
- Investigación documental, gráfica (en proyectos de animación) y búsqueda de archivos.
- Gastos de personal.
- Asesoría jurídica y fiscal para el proyecto presentado.
- Gastos generales.

Desarrollo de largometrajes

Para presentarse a las subvenciones se considerará largometraje "una obra audiovisual, de ficción, animación o documental, de duración igual o superior a 60 minutos y destinada a su explotación comercial en salas de cine, plataformas o televisiones".

El montante de las ayudas no podrá ser superior 25.000 euros en caso de ficción y documental y 35.000 en el caso de los proyectos en euskara. En el caso de los proyectos de animación, la cuantía máxima de subvención será de 40.000 euros y 50.000 para aquellos que sean en euskara.

Desarrollo de series

Con las subvenciones aprobadas hoy se contribuirá al desarrollo de series de ficción, animación y documentales y miniseries. Para ello se considerarán series "los proyectos audiovisuales, de ficción, animación o documentales, que tengan una duración total mínima de 135 minutos, con un mínimo de tres capítulos correspondientes a la primera temporada, y que se exploten en salas de cine, televisiones u otras formas de difusión".

Se considerarán miniseries "los proyectos audiovisuales, de ficción, animación o documentales, que tengan una duración mínima de dos capítulos y una duración total de 90 minutos. Estos proyectos deberán ser explotados para su comercialización en salas de cine, televisiones o plataformas".

Los series o miniseries de ficción o documental que se presenten recibirán una ayuda máxima de 35.000 euros, 45.000 para aquellas realizadas en euskara. En el caso de series y miniseries de animación, la ayuda máxima será de 45.000 euros y 55.000 euros en los proyectos en euskara.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del 25 de marzo hasta el 25 de abril.

A través de **la convocatoria del año pasado (2023) se subvencionaron 12 largometrajes**, entre ellos, "Lamiak", "Hemen nago", "Errautsak-popel" o "Cicatriz"; **y 5 series**, entre las que están "las leyendas de Ezki", "Egia" o "Luces rojas".